

## Bestelako Xedapenak

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2598

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 5koa, Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordearena. Honen bidez, abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuan –enplegurako laguntzak arautzen dituena– aurreikusitako laguntzak emateko 2010ean ezarritako kredituen guztizko zenbatekoa jakinarazten da.

329/2003 Dekretuko II. kapitulutik V.era bitarteko xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, enpleguaren arloan emango dituen laguntzen esparrua arautzea da, ondoko jarduera-lerroei jarraituz:

II.– Kontrataziorako laguntzeak ematea, lanmerkatuan sartzeko zailtasun handieneko kolektibotako kideak laneratzea errazteko.

III.– Plantillak berritzeko laguntzak.

IV.– Lanaldia banatzeko diru-laguntzak.

V.– Toki-mailako enplegu- eta prestakuntza-proiektuetarako laguntzak.

Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko 58.3 artikuluan ezartzen den publikotasun-printzipioa betetze-aldera, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako urtero argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuordearen ebazpenaren bidez, aipaturiko Dekretuko laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoa osoa, edo, hala badagokio, eguneratzetik eratorritako zenbatekoa.

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 6ko 538/2009 Dekretuaren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegu eta enplegurako prestakuntzako politikak Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratze Sailburuordetzaren eskumenekoak dira.

Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren 60.1 artikuluan agindutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan propio ezarritako aurrekontu-izendapenetatik edo aurrekontu-izaerako lege mailako arauetatik aterako dira dekretu honen helburua betetzeko behar diren diru-baliabideak. Horrez gain, xedatzen duenez, ekonomia-urte baten barruan emango diren laguntzen bolumen osoak ez du aipatutako dirua gaindituko. Halaber, indarrean dagoen legediaren araberrako aurrekontu-aldaketak onartzen badira, laguntzen bolumen osoak ezin izan-

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2598

RESOLUCIÓN de 5 de mayo de 2010, del Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social, por la que se da a conocer el importe total de los créditos asignados en el año 2010 para la financiación de las ayudas previstas en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas al empleo.

El objeto de los capítulos II a V del Decreto 329/2003 es la regulación del marco de ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, otorgará en materia de empleo, a través de las siguientes líneas de actuación:

II.– Ayudas a la contratación para favorecer la inserción laboral de personas pertenecientes a colectivos con mayores dificultades de acceso al mercado de trabajo.

III.– Ayudas a la renovación de plantillas.

IV.– Ayudas al reparto de tiempo de trabajo.

V.– Ayudas a proyectos de Empleo-Formación en el ámbito local.

A los efectos de dar cumplimiento al principio de publicidad regulado en el artículo 58.3 del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, el Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social, mediante resolución que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, dará a conocer anualmente el importe total de los créditos asignados para la financiación de las líneas de ayudas previstas en el Decreto citado, o, en su caso, el importe que resulte de su actualización.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 del Decreto 538/2009, de 6 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, son competencia de la Viceconsejería de Empleo, Formación e Inclusión Social las políticas de empleo y de formación para el empleo.

El artículo 60.1 del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, señala que los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto del presente Decreto procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o en normas con rango de Ley de carácter presupuestario. Asimismo establece que el volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la

go du horrela eguneratutako kopurua gainditu.

Horren ondorioz, abenduaren 23ko 2/2009 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010eko ekitaldirako Aurrekontu Nagusiak onartzen dituen onartu denez, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko –enplegurako laguntzak arautzen dituen– II. kapitulutik V.era aurreikusitako laguntza-lerroak, Enpleguaren 32110 azpiprogramaren kontura, finantzatzeko, 2010eko aurrekontu arruntean eta zenbait urtetarakoetan (2011, 2012, eta 2013koak) ezarritako kredituen guztizko zenbatekoa jakitera ematea; guztira: 6.873.491,39 euro, honela banakaturik: 6.107.964,88 euro 2010eko aurrekontu arruntekoak dira, eta 759.357 euro 2011ko ekitaldirako konpromiso-aurrekontukoak; 4.113,01 euro 2012rako konpromiso-aurrekontukoak eta 2.056,50 euro 2013rako konpromiso-aurrekontukoak.

**Bigarrena.**– Aipatutako kopurua eguneratu ahal izango da, indarreko legeriaren arabera aurrekontuen aldaketaren bat onartzen baldin bada. Aldaketa horiek egon baleude, gertaera hori argitara emango litzateke, Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

**Hirugarrena.**– Jakitera ematea 329/2003 Dekretuko II. kapituluaren adierazitako desgaituentzako laguntzak Europako Gizarte Funtsetan % 50eko finantziarioarekin eman direla, Euskal Autonomia Erkidegoko EGIF 2007-2013 Programa Operatiboaren barruan.

#### AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 5a.

Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordea,  
JAVIER RUIZ FERNÁNDEZ.

que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

En su virtud, habiéndose aprobado la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010,

#### RESUELVO:

**Primero.**– Hacer público el importe total de los créditos asignados del presupuesto ordinario 2010 y los plurianuales de 2011, 2012 y 2013, para la financiación de las líneas de ayudas previstas en los capítulos II a V del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas al empleo, con cargo al subprograma 32110 de Empleo, asciende a 6.873.491,39 euros cuyo desglose sería: 6.107.964,88 euros correspondientes al presupuesto ordinario de 2010 y 759.357 euros correspondientes al presupuesto de compromiso para 2011, 4.113,01 euros correspondientes al presupuesto de compromiso para 2012 y 2.056,50 euros correspondientes al presupuesto de compromiso para 2013.

**Segundo.**– Dicha cuantía podrá verse, en su caso, actualizada en el supuesto de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En el supuesto de que existan dichas modificaciones, se dará publicidad a esta circunstancia mediante Resolución del Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social.

**Tercero.**– Comunicar que las ayudas otorgadas a las personas con discapacidad recogidas en el capítulo II del Decreto 329/2003 están cofinanciadas al 50% por el Fondo Social Europeo en el marco del Programa Operativo FSE País Vasco, 2007-2013.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2010.

El Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social,  
JAVIER RUIZ FERNÁNDEZ.